

Babes dikea, aspaldiko eskaera

Txurruka zientzialariak Mutrikuko kaia babesteko dike bat eraikitze beharra ikusi zuen XIX. mendearen. Baina diru faltagatik ez zen bere asmoa gauzatu.

kartzen dituen gune bat mantentzea lortuko luketela diote: gaur egungo hondartza.

Plan Berezia egitekotan, aldaketa ugari izango liriteke hondartzaren inguruan. Joseba Mugerzaren hitzetan, gaur egungo hondartzaren zati bat desagertu egingo litzateke, gainean zerbitzu gune bat egingo lukete eta. «Gainera bainurako gunea Burumendi azpiko arroak izango liriteke, eta ez dakit hori oso seguru izango ote den». Jose Agustin Elezgarainen ustez, ordea, hondartza handitu egingo litzateke. «Gaur egungo hondartzaren zati bat estalita geratuko litzateke, baina hondartza handitu egingo zen, eta 90 metro inguruko itsasbazterra izango luke. Orientazio berri bat izango luke, eta itsasoa hondar berria pilatzen hasi da, jadanik».

Babes dikeak ingurumenean izango duen eragina

Babes dikeak ingurumena errespetatzeko baldintzak betetzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Hala ere, ingurumenean eragina izango duela onartzen dute herritar gehienek, nahiz eta kalteak oso ezberdinak izango diren batzuen eta besteen ustetan.

Jose Agustin Elezgaraiak dioenez ingurumena ahalik eta gehien errespetatzen saiatu dira. «Ia ez du kalterik eragingo, eta eragitekotan, kalte bisuala izango da». Mutrikuko alkate Estanin Osinaldek ere antzeko iritzia dauka. «Ni naiz Mutriku polita izatea nahi duen lehena, baina dikea egin egin behar bada, egin egin beharko da».

Hobetu Leikeko kideen arabera, ordea, ondorio larriagoak izango ditu dikeak. Babesturiko haitz gune batek kalteak jasango ditu, eta gaur egungo ingurumena «dezente» aldatuko da.

2.008. urterako bukatuta

Sarbidea eta dikea 2.008. urte hasierarako eraikiko dituztela aurreikusitako teknikeriek. Gaur arte 120 metro eraiki dituzte, Eusko Jaurlaritzaren arabera.

Aho batez proiektuaren alde

Mutrikuko Udaleko alderdi politiko guztiak ofizialki proiektuaren alde azaldu dira. Bai alkatetzatzen Euskal Herritarrok zegoela, bai eta EAJ dagoela ere.

Helburuetan bat egiten duten arren, prozeduretan ez dira ados jartzen

Kaia babesteko hainbat alternatiba aurkeztu dituzte Jaurlaritzak eta herriko plafaformek

B.E. - MUTRIKU

Mutrikuar gehienek babes dikea eraikitzea eta portua berritzea nahi dute, bai eta kalitatezko turismoa erakartzea ere. Baina hori nola lortu? Jaurlaritzaren proiektuaz gain, bi alternatiba aurkeztu dituzte mutrikuarrek.

EUSKO JAURLARITZA

434 metroko babes dikea eta 405 metroko sarbidea

Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen babes dikeak 435 metroko luzera, eta 13-16 metro bitarteko altuera izango du. Bertara iritsi ahal izateko 405 metroko sarbide bat eraikiko dute. Sarbidearen ezker aldean hondartza eta igerileku berriak egingo dituzte; eskuin aldean, berriz, babesturiko eremua geratuko da.

Mutrikuko Udalak eta Mutriku Bizirik herri plataformak bat egiten dute Eusko Jaurlaritzaren proiektu horrekin.

HOBETU LEIKE

300 metroko babes dikea, Burumenditik abiatuta

Hobetu Leike herri plataformak ere babes dike bat egiteko apustua egiten du, baina Eusko Jaurlaritzak proposatzen duena baino txikiagoa. Taldearen iritziz, nahikoa litzateke 300 metroko babes dike bat egitea, gaur egungo portuaren sarrera itsaso zakarratik babesteko. Babes dike hori Burumendi itsaslabarretik abiatu



MUTRIKUKO babes dike berria eraikitzeko sarbidea egiten hasi dira. ANDONI CANELLADA/JARGAZKI PRESS

tuko litzateke, eta portuko sarrerara iritsi baino lehen leherraziko litzuzte.

SANTAKARRA BIZIRIK

Irla artifiziala, Burumendi itsaslabararen parean

Santakarra Bizirik herri plataformaren iritziz, ez da dikerik eraiki beharrik portua babesteko. Taldearen ustez, mendebaldeko olatuak etete nahikoa da Burumendi itsaslabararen inguruan uharte artifizial bat eraikitzea. Uharteak Eusko Jaurlaritzaren proiektuak baino kalte gutxiago eragingo lukeela diote, eta ez lukeela ingurumenean

eragin handiegirik izango. Horrela, herriaren edertasuna eta arrantza nortasuna mantendu eta areagotu egingo litzatekeela uste dute.

MUTRIKUKO PORTUAREN PLAN BEREZIA

Mutrikuko azpiegitura indartzeko proiektua

Proiektua denen ahotan dabilen arren, oraindik ez da egingo den ala ez erabaki. Mutrikuko Portuaren Plan Bereziak Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen babes dikea hartuko luke oinarritzat, eta horren ondoren eraikiko lukete gainerakoak.

Babes diketik gaur egungo porturantz beste dike txiki bat eraikiko lukete, eta horrela gauzatuko lukete arrantza-ontzien portu berria. Gaur egungo portua kirol kai bihurtuko lukete, eta bi portuen artean zerbitzu gune bat eraikiko. Gune horretatik kudeatuko litzuzte bi kaiak, eta zenbait zerbitzu eskainiko litzuzte. Aparkaleku bat egingo lukete zerbitzu gunearen azpian.

Mutrikuko Udala eta Mutriku Bizirik herri plataformak bat dutoz Plan Bereziarekin. Hobetu Leike eta Santakarra Bizirik herri plataformek, aldiz, ez dute proiektua gauzatzetik nahi.

Dikearen legezkotasuna eztabaidagai

Aldekoek lanak hasteko baldintza legal guztiak bete dituztela diote; kontrakoek, aldiz, lanak epe kanpo hasi zirela

B.E. - MUTRIKU

Dagoeneko hasi dira Mutrikuko (Gipuzkoa) babes dikea egiteko lanak, eta 120 metro inguru eraiki dituzte, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Baina lan horiek legezkoak ote dira?

Moila egiteko behar den eremua itsasbazterrean dagoenez, Madrilgo Gobernuari (Espainia) dagokio lur sail hori kudeatzea. Eremu hori erabili ahal izateko baimena eskatu zion Eusko Jaurlaritzak Espainiako Ingurumen

Sailari, eta honek 2004ko urriaren 20an onartu zuen eskaera. Baina bi baldintza jarri zituen: 2005eko urriaren 20rako dikea egiteko zuinketa akta sinaturik, eta eraikitze lanak hasita behar zuten. Egun horretarako bi baldintzetako bat betekoz ez balitz, baimena bertan behera geratuko litzateke.

2005eko urriaren 20a

Mutrikuko Udalaren eta Mutriku Bizirik-en ustez, baldintza legal

guztiak bete dituzte, eta legezkotak dira babes dikea eraikitze lanak. Mutriku Bizirik-eko partaide Jose Agustin Elezgarainen esanetan, 2005eko urriaren 18an sinatu zuten zuinketa akta, eta 19an, lanak hasteko etxolak portuan jartzen hasi ziren. «Lanak zuinketa aktak sinatzean hasten dira, eta beraz, obra legezkotak da».

Hobetu Leike herri plataformako kideen ustez, ordea, lan horiek legezkotak dira. Beren iritziz, ez zuten Espainiako

Ingurumen Sailak eskatzen zituen bi baldintzak bete. «Egia da aktak epearen barruan sinatu zituztela, baina ez ziren urriaren 20rako lanean hasi». Beren ustez, bi baldintzetatik bakar bat bete zuten epe barruan. Hobetu Leikeko partaide Xabier Uranganen arabera, gainera, hori frogatu egin daiteke. «2005eko urriaren 20an eta 21ean lanen aztar-narik ez zegoela nabarmendu zuten notario batek. Eta hori ez dugu gukesaten, hori notario batek esaten du».

Lan horiek legezkotak direla uste dutenez, Madrilgo Auzitegi Nazionallean (Espainia) kexa bat aurkeztu zuen Hobetu Leikek. Epailerek erabakia hartu arte lanek jarraitu egingo dute, eta nahiko etsita daudela onartu dute mutrikuarrek. «Hitz egin behar duten epailerek oraindik ez dute hitzik egin, eta lanak aurrea doaz. Benetan gaia aztertu nahiko balute, egingo lukete baina...». Dena dela, beste neurrien bat hartzea ere aztertzen ari dira, «zirt edo zart» egiteko.